

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Kirolari federatu ez-profesionalek egindako kirol jardueretarako dirulaguntzen deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 741296

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 173.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/741296>).

Alkatearen 35/2024 ebazpena, 2024ko urtarrilaren 24koa, zeinaren bidez deialdia egiten baita norgehiagoka prozedura bidezko 2023-2024ko dirulaguntzetarako, kirolari federatu ez-profesionalek egindako kirol jardueretarako.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 173.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: www.infosubvenciones.es.

Lehenengoa. Onuradunak

Onuradun izango dira banakako kirolariak, federatuak eta ez-profesionalak, probintziako, autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeagatik.

Bigarrena. Xedea

Deialdiaren xedea da udalerrian erroldatuta dauden eta kirol federatu ez-profesionala egiten duten pertsonen dirulaguntzak ematea probintziako, autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko.

Dirulaguntza jaso ahal izango da legez onartutako edozein kiroletako lehiaketetan parte hartzeko eta kirol materiala erosteko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arauak Udaltzatzen 2023ko otsailaren 27ko bilkuran onetsi ziren eta apirilaren 17ko ALHAOn argitaratu ziren (45/2023 zenbakia).

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Kirol materialerako: gastuaren ehuneko 50, eta gehienez ere 100,00 euro.

Lehiaketetan parte hartzeko:

Probintziako lehiaketak: 50,00 euro.

Probintziako lehiaketak gehi Euskadikoak: 120,00 euro.

Probintziako lehiaketak, gehi Euskadikoak, gehi estatukoak: 200,00 euro.

Estatuko eta nazioarteko txapelketak: 230,00.

Kirol materiala eskuratzeko 100,00 euroko gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion adjudikazioak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalan banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ez da gaitutuko egindako gastuaren ehuneko 100.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko, kirol materiala eskuratzeko dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da, eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak oinarrien eranskinean ageri den ereduan egin behar dira, eta oinarrietan jasotako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2024ko irailaren 30ean bukatuko da.

Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Federazio lizentzia.

Eskatutako dirulaguntzaren xede den kirol materialeko gastuari dagokion jatorrizko faktura, bai eta faktura hori ordaindu izanaren ordainagiria ere. Eskudirutan ordainduz gero, jaulkitzaileak faktura zigilatu beharko du eta eskudirutan ordaindu dela adierazi.

Urtean zehar probetan parte hartu izanaren egutegia, egiaztagiria eta zerrenda zehatza, sinatuta, eta probok probintziakoak, Euskadikoak, estatukoak edo nazioartekoak diren adierazita.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2024ko urtarrilaren 24a

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE